

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezero berriak erakartzeko metodo bat hizketaldiak izango dira, horrela bezeroengana heltzea erraza eta desberdina izango da. Hitzaldi on batekin lor ditzakegun emaitza onak kontuan hartuta, oso gogoan izan nahi dugu nola egin. Garrantzitsuena **kanala** da, hau da, informazioa transmititzen ari den pertsona; beraz, ahotsa eta keinuak erabiltzen jakin behar da. Hitzezkoa ez den komunikazioa ere oso garrantzitsua da, mezuaren %90 baino gehiago transmititzen baitute.



Bi motako hizketaldian egongo dira, alde batetik **unibertsitate desberdinetara** (Mondragon, UPV, UNAV,...) **joango gara** gure proiektuari buruz informazioa emateko, horrela praktitak egiterako orduan gure programa ezagutuko dute eta aukera bat bezala izango dute. Hau da, hizketaldi hauek unibertsitateetan ematean, bezeroak lortu nahi ditugu, baina praktikak egiteko jendea bilatzen dugu ere bai. Gure enpresan praktikak egiteko aukera izateko unibertsitateekin akordioak egingo beharko ditugu, haien aukeren artean gurea bat izan dadin.


Beste aldetik **eskoletara joatea** ideia ona da, horrela DBHko eta Batxilergoko ikasleak gure laguntza jaso dezakete, edota agian klaseak hartu nahi izango dituzte gure psikologoaren laguntzaz .

Gure elevator pitchean esaten dugun bezala, **gazteen artean arazo oso handia dago suizidioekin**, eta horregatik oso garrantzitsua da guretzat sektore hau, haien arazo pertsonalak partekatzea erreza ez delako askotan. Sare sozialen bidez bezeroak lortzea posible denez, Instagrameko, Twitterreko eta Facebookeko kontuak izango ditugu, informazioa emateko eta ordaindutako publizitatea egiteko.



Gure bezeroak mantentzen saiatuko gara, **harreman estua** emanez, mundu guztiak osasun mentaleko metodo baterako sarbidea izan dezan lortu nahi baitugu.

Gure enpresaren kasuan, gure **bezeroekiko harremana zuzena** izatea da ideia printzipala, zuzenean gure eraikinera joango baitira



eskolak ematera edo jasotzera, baita laguntza profesionala jasotzera ere. Lotura mota **epe luzekoa** izango da, matrikula egiteko aldez aurretik ordaindu behar baita (hilabete baterako, hiru hilabeteetarako, urte baterako,...); beraz, aldez aurretik ordaindu beharko da, lotura bat sortzen. **Intimitatea izango**

dute gure bezero guztiek , **izan ere**, ia guztia gure eraikinean egingo da eta irakasleak eta profesionalak prest egongo dira uneoro laguntzeko. Gauza batzuk online egingo dira; tutoriak online egitea posiblea da, informazioa emateko telefonoa egongo da, plataforma bat eukiko dugu...